

Azterketak

Aberastasuna banatu

- + salarios
- + gasto social
- + justicia fiscal

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Eusko Jaurlaritza
eta Nafarroako
Gobernuaren 2009rako
aurrekontuen azterketa

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

A. SARRERA	3
B. 2009rako EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTU PROIEKTUAREN AZTERKETA	4
1. Gastu publikoaren zama txikiagotzen da 2008arekiko	4
2. Osasuna	6
3. Hezkuntza	8
4. Etxebizitza	12
5. Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	13
6. Garraio eta Herri Lanak	14
7. Pobreziaren aurkako politika	15
8. Zor publikoa	16
9. Aurrekontu superabita	18
10. Gastu fiskalak	19
11. Administrazioari buruzko politika	20
C. NAFARROAKO GOBERNUAK 2009rako IRAGARRITAKO AURREKONTU-PROIEKTUA ETA ZERGA-ERREFORMAK	22
1. Gastu publikoa faltsutu egiten da	22
2. Gastu publikoak ekonomian duen pisua urritu egiten da	24
3. Gastuaren urritze orokorra	25
4. Osasuneko gastu eskasa	27
5. Hezkuntzako gastu publikoa	29
6. Euskara gaietan gastu publikoa	30
7. Etxebizitzari buruzko politika	31
8. Zerga-iruzurra	33
9. Aurrekontu-murrizketa	34
10. Zor publikoa	34
11. Zerga-erreformei buruzko proiektuaren azterketa	35
11.1. PFEZ	35
11.2. Ondarearen gaineko zerga	36
11.3. Sozietateen gaineko zerga	36
12. Ondorioztapenak	37

Aurrekontuen lege proiektuak berebiziko garrantzia du instituzioen politikak ikertzeko garaian. Diskurtso orokorren gainetik, gehienetan propagandaz blai daudenak, errekurtsio ekonomikoak nora bideratuko diren zehazten da aurrekontuetan, ala nola, osasunera, hezkuntzara, etxebizitzara, gizarte zerbitzuetara, eta abar.

Behaz, beharrezkoa da aurrekontuen irakurketa eta azterketa egitea gure beharrak asetzeko Gobernuak nahikoa egiten duten jakiteko.

Dokumentu honetan Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako 2009ko Aurrekontuen Lege Proiektuak aztertzen ditugu. Azken kasu honetan, aurkeztu diren aldaketa fiskalen azterketa ere egiten dugu, batik bat, Ondare Zergaren abolizioan datzana.

Abagune ekonomiko larrian aurkitzen gara, hazkunde ekonomikoaren txikiagotze larria ematen delarik. Egoera hau gainditzeko, instituzio publikoek paper garrantzitsua izan behar dutelako iritzia orokorra da.

Hala eta guztiz ere, beharra denean, Nafarroako eta EAEko Gobernuak 2009rako aurkezten dituzten aurrekontuak aurreko paragrafoan esaten denaren aurka jotzen dute zuzenean.

Hau da, gastu publiko handiagoa beharrezkoa denean, gastu sozialean batik bat, ekarpen positibo bat egitetik urrun dauden aurrekontuak aurkeztu dituzte bi instituzioek.

Politika neoliberalak ekarri dute krisia sistema finantzariora, eta ekonomia errealerara pasatzen ari da. Beharrezkoa da sustraiko aldaketa bat politika hauetan, aurrekontuetako politikak eta politika finantzarioak aldatuz ere, noski. Hauetatik urrun, Nafarroako eta EAEko Gobernuak azken urteetako politika berdinak ezarri jarraitzen dute.

Politikak aldatzeko garaia da, baina Gobernuak ez dute inongo borondaterik hain beharrezkoak diren pausuak emateko.

B. 2009rako EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTU PROIEKTUAREN AZTERKETA

1. GASTU PUBLIKOAREN ZAMA TXIKIAGOTZEN DA 2008AREKIKO

Gasteizko Gobernuaren aurrekontuen lege proiektuak, 10.487,5 milioi euroko gastua aurreikusten du 2009rako. Baina haueetatik, 517,6 milioi euro trenbide sare berrirako gestio kreditukoak dira, Espainiar Estatuko Gobernuak finantzatzeko. Beraz, gure azterketa honetan Garraio eta Herri Lan Saileko partida honek osatzen duen diru kopurua ez dugu kontutan hartuko, ez baita EAEko Gobernuaren gastua, eta Gobernu honek gastatuko dituen 31,5 milioiak izango ditugu kontutan.

Partida hau alde batera utzita, 2009ko aurrekontua 9.970 milioi eurotan geratzen da. Gastu hau 2008ko gastu aurreikuspena baino %4,1 handiagoa besterik ez da. Datorren urtean, Eusko Jaurlaritzaren gastua, BPGd-aren hazkunde nominala baino (%4,5) gutxiago hasiko dela esan nahi du honek, eta beraz, Gobernuak 2009an ekonomian zama galduko duela.

EAEko ekonomian 2009an sortzen diren 100 eurotatik, 13,6 izanen dira gastura bideratzen direnak, 2008an 13,7 euro izan direla aurreikusten denean. Hau da, 2009rako 63,2 milioi gehiago sartu behar izanen lirateke aurrekontuan gastuaren zama mantentzeko ekonomian.

Garrantzia gehiago hartzen du ekonomian zama galtze honek gaur egungo abagunean, ekonomia bultzatu eta moteltzearen ondorio txarrak arintzeko administrazioaren esku hartzea handiagoa izan beharko lukeelako, gastu sozialaren arloan batez ere.

Osasun Saila da nagusia gastuari dagokionean, 3.442,7 milioi euroko aurrekontuarekin, guztiaren %34,5 suposatzen du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila da hurrengoa, 2.625,9 milioi euro eta %26,3arekin.

Gainerako sailak zama gutxiago dute nabarmen; Herrizaingo Saila da ondorena, 680,7 milioi euroko gastua eta guztiaren %6,8rekin, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, 659,3 milioi eta aurrekontu guztiaren %6,6arekin.

Ondoren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila dago (289 milioi euro eta guztiaren %3,9arekin), Garraio eta Herri Lan Saila (383,1 milioi eta guztiaren %3,8), Kultura Saila (301,7 milioi eta %3a), Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila (294,3 milioi eta %3a), eta abar.

AURREKONTU PROIEKTUA ETA BILAKAERA (MILIOI €, GUZTIAREN %, BPGd % ETA % ALD.). EAE, 2008, 2009

	2009 (*)		2008 (*)	2008 (*) - 2009(*)	
	Milioni €	Guzt. %	BPGd %	BPGd %	% Ald.
Osasuna	3.442,7	34,5	4,7	4,6	6,3
Hezkuntza, Unibert. eta Ikerketa	2.625,9	26,3	3,6	3,7	2,0
Herrizaingoa	680,7	6,8	0,9	1,0	1,8
Justizia, Enplegua eta Giz. Segur.	659,3	6,6	0,9	0,8	12,2
Industria, Merkatar. eta Turismoa	389,3	3,9	0,5	0,6	0,6
Garraio eta Herri Lanak	383,1	3,8	0,5	0,5	11,4
Kultura	301,7	3,0	0,4	0,4	7,7
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	294,3	3,0	0,4	0,4	5,0
Ogasun eta Herri Administrazioa	185,8	1,9	0,3	0,4	-37,5
Nekazaritza eta Arrantza	177,1	1,8	0,2	0,3	-9,7
Ingurumen eta Lurralde Antolam.	143,6	1,4	0,2	0,2	6,4
Besteak	686,3	6,9	0,9	0,8	17,4
GUZTIRA	9.969,9	100	13,6	13,7	4,1


Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, Eustat

() AHTaren eraikuntzagatik Espainiako Gobernuari dagozkion kudeaketa kredituak kenduta (517,6 milioi euro 2009ko aurrekontuan eta 21,6 milioi 2008ko gastu aurreikuspenean)*

Ondorengo grafikoan EAeko gastu publikoaren bilakaera ikus daiteke sortutako aberastasunarekin lotuta (BPGd). Marraren gainetik dauden puntuek AHTaren eraikuntzarekin lotuta dauden diru kantitateak biltzen dituzte, eta, azaldu bezala, ez du EAeko Gobernuarentzat gasturik suposatzen. Bere eransketak gastua desitxuratzen duela nabaria da, batez ere 2009ko ekitaldian.

Interesgarria da 1998tik, informazioa eskuragarri dugun urte guztietan (2007ra arte, hau delako itxiera izan duen azken urtea), EAEko Gobernuaren gastuak ez duela BPGd-aren %13 gainditu egiaztatzea. 2008ko aurreikuspenak eta 2009 proiektuak soilik gainditzen dute, baina aipatu bezala, ez du benetan burutu den gastua suposatzen, zer gerta ere kontuz hartu beharko delarik.

EAEko GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (% BPGd). 1998-2009




Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

2. OSASUNA

2009rako osasunean aurreikusitako gastua 3.442,7 milioi eurokoa da, BPGd-aren %4,7 suposatzen duena. 2008tik %6,3ko areagotzea izan du, 372,4 milioi euro gehiago bideratuko direla esan nahi du honek BPGd-arekiko.

Osasunean izan den gastuaren bilakaera 1998tik aztertzen badugu, goranzko joera arin bat nabaria da, 2005tik aurrera, BPGd-arekiko gastu portzentaia 0,1 puntu igotzen baita urtero.

**OSASUNEAN IZANDAKO GASTU PUBLIKOAREN
BILAKAERA EAEn (% BPGd). 1998-2009**




Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

Hau horrela izanda ere, atzerri hurbilarekin dugun urritasunak handitze hau ez dela nahikoa adierazten digu. Europar mailan dagoen osasun gastuari buruzko daturik ez dago, baina bai osasun sistemari buruzkoak (hala nola gizarte zerbitzuekin erlazionaturiko beste partida ezberdin batzuk gain hartzen ditu azken honek), eta konparaketa egiteko balio digu.

Ondorengo grafikoan EAEko osasuneko gastua ELGEko estatuaren artean txikienetakoa dela ikus dezakegu (2005eko datuak dira, hauek baitira eskuragarri dauden azkenak). Greziako estatuak soilik bideratzen du BPGd-arekiko portzentaia txikiagoa osasun gastuetara (%4,3), EAEko %5aren aldean.

Bai estatu aberatsagoek (adibidez frantziar estatuak BPGd-aren %8,9 edo Alemaniaren %8,2a), nola txiroagoek (adibidez Portugalek %7,4a edo espainiar estatuaren %5,9a) gastu handiagoa bideratzen dute osasun publikora. Esanguratsua da Estatu Batuek ere BPGd-aren zati gehiago erabiltzen dutela osasunaren finantzaketa publikoan.

OSASUNEAN GASTU PUBLIKOA (% BPGd). ELGE, 2005



Iturria: Osasunaren Kontua. EAE oinarritzat hartuz
ELAko Azterketa Bulegoak egina, IEN

Gobernuak aurkezturiko informazioak ez du baimentzen gastu publikoko zein kantitate bideratzen den osasun pribatua finantzatzera jakitea. Dena dela, Osasunaren Kontuak, portzentaia hau handituz doala adierazten digu, eta gure inguru ekonomikoaren handiena dela.

3. HEZKUNTZA

2009an hezkuntzarako aurreikusitako gastua 2.625,9 miloi eurokoa da, 2008an bideratutakoa baino %2 gehiago bakarrik. Diru kantitate honek BPGd-ren %3,6a bakarrik suposatzen du. Diru partida garrantzitsuenak ondorengo hauek dira:

- 939,8 miloi euro bigarren hezkuntzarako, osabide hezkuntzarako eta lanbide heziketarako izatea aurreikusten da, heziketara bideratuko den kopuru osoaren %35,8a.
- Haur eta lehen hezkuntzara 900,2 miloi euro, heziketara bideratuko den kopuru osoaren %34,3.
- Unibertsitaeko irakaskuntzara 353,7 miloi bideratzea aurreikusi da, kopuru osoaren %13,5.


HEZIKETAKO GASTU PUBLIKOA. AURREKONTU PROIEKTUA EAE, 2009

	Miloi €	Heziketan orotara %
Bigarren hezkuntza, osabide hezkuntza eta lanbide heziketa	939,8	35,8
Haur eta lehen hezkuntza	900,2	34,3
Unibertsitate irakaskuntza	353,7	13,5

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua

Ondorengo grafikoan ikus daiteke gastu publikoaren baitan hezkuntzak 1998tik gaur egun arteko izandako garapena zein izan den. Gora behera gutxi izan da or-har, baina 1998 eta 2008 bitartean beherakada izan dela ikus daiteke. Hain zuzen ere, 2008ko aurrekontuetan hezkuntzak izandako garrantzia mantentzeko 66,7 miloi euro gehiago beharko lirateke, eta 1998ko bestekoa lortzeko 40,2 miloi euro gehiago.

EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA HEZKUNTZAN, HEZKUNTZA MAILAKO (BPGd %). 1998-2009



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat


Hezkuntza tarte bakoitzak 2008arekiko izandako garapena ikus daiteke jarraian:

- Unibertsitateko Irakaskuntzara bideratutako gastuaren pisua BPGd-rekiko mantedu egiten da (743.433 euroko beherakada izango du)
- Bigarren Hezkuntzarako, osabide hezkuntzarako eta lanbide heziketarako gastuak pisua galtzen du ekonomian, BPGd-ren 0,03 puntu, 21,7 miloi euroko beherakada.
- Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako gastua jaitsi egingo da BPGd-ren 0,02 puntu, 15,5 miloi euro gutxiago hain zuzen ere.

Analisia erabat aldatzen da erreferentziazat 1998.urtea hartzen baldin badugu:

- Unibertsitateko Irakaskuntzarako gastua BPGd-ren 0,04 puntu haziko da, 34,9 miloi euro haziz hain justu. Dena dela, Europan bideratzen den batz besteko gastura ez da iristen.
 - Haur Hezkuntza eta lehen mailako hezkuntza gastuek ere BPGd-ren 0,05eko igoera jasango dute (35,7 miloi euro). Egun hezkuntza tarte hauetan dauden gabeziak ikusita garrantzi gabeko gastu hazkundera da.
 - Bigarren hezkuntzara, osabide hezkuntzara eta lanbide heziketara bideratutako gastua berriz, BPGd-ren 0,23 jaitsiko da. Beraz, 1998an baino 164,2 miloi gutxiago aurreikusten dira.
-


EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA HEZKUNTZAN, HEZKUNTZA MAILAKO (BPGd %). 1998-2009



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006 eta 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

Ondorengo grafikoak erakusten du hezkuntzan ere azken postuetan gaudela ELGerekiko alderatuta. 2005.urtean ELGEk hezkuntzara BPGd-ren %5 bideratu zuen bitartean EAEan %3,5 bakarrik bideratu zen. Ondorioz, EAEn 859,3 miloi euro gutxiago gastatu ziren, pertsonako 401,2 euro gutxiago.

HEZIKETARAKO GASTU PUBLIKOA (BPGd %). ELGE, 2005



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2005ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2005, Eustat, ELGE, IEN

4. ETXEBIZITZA

2009rako aurrekontuetan etxebizitzarako jasotako gastua 204,2 milioi eurotako da, 2008ko 198 milioiak baino %3,1 gehiago. Honek, BPGd-aren %0,3a suposatzen du ekitaldi bietarako. Portzentaje hau bere horretan mantendu da 2003 ekitalditik (Etxebizitza Sailak 2002 erdialdean aldatu zuen egituraz eta alderdiz).

**ETXEBIZITZAN GASTU PUBLIKOA
(MILIOI € ETA BPGd %). EAE, 2003-2009**


URTEA	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Milioi €	136,7	154,3	157,4	171,6	188,9	198,0	204,2
BPG %	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

5. INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Aurrekontu proiektuak 143,6 milioi eurotako zuzkidura jasotzen du Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailerako, BPGd-aren %0,2a. Azken urte bietan izandako hazkundera alde batera utzita, ingurumen eta lurralde antolamenduan gastuaren pisua murriztu egiten dela 2003arekiko ikusi daiteke ondorengo grafikoan. Zehazki, sailak 2003an zuen pisua mantentzeko, aurrekontuetan jasotakoa baino 20,1 milioi euro gehiago jaso behar zitekeen aurrekontuetan.

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPGd %). 2003-2009



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat


Lurralde antolamendua bezalako oinarritzko gaiak erakunde publikoentzat duen garrantzi politiko ezaren isla da sail honi zuzenduriko zuzkidura eskasa. Ingurumenaren babesera zuzentzen den zuzkidura eskasaren isla ere bada, ikuskaritza eta enpresarik kutsagarrienen Ingurumen Baimen Bateratuarekin erlazionaturiko gaiak barne.

6. GARRAIO ETA HERRI LANAK

Garraio eta Herri Lan Sailaren gastua 383,1 milioi eurotako da, BPGd-aren %0,5, aurreko ekitaldietan baino zerbait altuagoa.

Bilakaera hau ondoko grafikoan ikusi daiteke, eta baita Garraio eta Herri Lanen Saileko gastu publikoaren pisuan EAeko trenbide sare berrirako kudeaketa kredituak sartu edo ez sartzearen ondorioz ematen den aldea ere.

GARRAIO ETA HERRI LANETAN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPGd %). 2003-2009



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

Atal honetan, interesgarria da 1998etik Eusko Jaurlaritza trenbide sare berrira zuzentzen egon den kopuruak aztertzea. Obrak 2006rarte hasi ez diren arren, Eusko Jaurlaritza kopuru handiak bideratzen egon da gai honetara, eta horrek, kopuruon parte garrantzitsu bat proiektuaren gaineko publizitatea egitera zuzendu dela esan nahi du. Zehazki, 1998 eta 2006 artean, Gasteizko gobernuak 9,7 milioi euro bideratu ditu ekintza horretara, eta horrek, zalantza gabe, sentsurik ez duen eta aurkako gizarte oposizio zabalaren duen mega proiektua justifikatzeko diru publikoaren erabilera suposatzen du.

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, euskal trenbide berrirako zuzenduriko partidak, normala den bezala, nabarmen hazi dira obren hasierarekin. Adierazgarria da, baita ere, espainiar gobernutik dirurik jaso ez izana lanak hasi eta bi urte pasatu arte.

URTEA	KUDEAKETA KREDITUAK	EUSKO JAUR. GASTUA
1998		682.791
1999		254.532
2000		100.279
2001		971.464
2002		634.000
2003		3.768.705
2004		3.061.500
2005		210.540
1998-2005		9.683.811
2006	0	6.159.900
2007	0	15.688.000
2008	21.553.000	33.238.000

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua, 2008ko likidazioaren aurreikuspena, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006 eta 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak,

7. POBREZIAREN AURKAKO POLITIKA

Aurrekontuen lege proiektuarekin bat, egokia da pobrezia aurka aurrera eramandako politikak aztertzea. Batez ere, Oinarrizko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen balorazioan datza.

Pobrezia bilakaerak zirikusi handia du inguru ekonomikoarekin, enpleguarekin eta gizarte estalduraren politikekin. EAEan 1996tik ez da pobrezia egoeran bizi den biztanleriaren kopurua jaitsi. Mantenimendu pobrezia, norberaren mozkin baliagarriekin, eguneroko gastuei aurre egiteko zailtasuna neurtzen du.

Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestak 2008an gizartearen %4,1a pobrezia egoeran zegoela adierazten du (aipatutako mantenimendu pobrezian). Portzentaje hau aurreko inkestakoa (2004koa) baino altuago da, eta 1996 baino altuagoa ere.

POBREZIA EGOERAN DAGOEN JENDEAREN %. EAE

	1996	2000	2004	2008
Pobrezia %	4	3,6	3,5	4,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Pobreziaren bilakaera hau hazkunde ekonomiko eta enplegu sortze garrantzitsu baten baitan eman da. Argi geratzen da, beraz, aberastasunaren banaketa bidegabea, lan prekarietatea, soldata eskasak eta gizarte prestazioen maila baxuak izan direla pobreziaren handitze onartezin honen sortzaileak.

Oinarrizko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen politika, hortaz, ez da gai izan pobreziaren bilakaera kaltegarria geldiarazteko. 2009ko aurrekontuek ere ez dute sustraiko aldaketarik 2008ko aldean:

- Oinarrizko Errentan politika berdina mantentzen da- gutxienezko soldataren %88a, bakarrik bizi diren pertsonentzat. Lanbidearteko gutxienezko soldataren %125eko topea bizikideen unitateentzat, diren bizikide kopurua direla. Bakarrik bizi diren pentsiodun pertsonentzat, LGSaren %100erarteko hobekuntza, positiboa denak, hedadura mugatua du.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) 34,5 milioi eurekin jantzen dira, aurreko urteetako antzeko kantitatea, eta modu nabarian eskas geratu dena. GLL eskubide izan gabe jarraitzen dute, eta beraz, aurrekontuan aurreikusitako diru partida bukatzearekin, betetzeke geratzen diren eskubideak dira.

8. ZOR PUBLIKOA

2009rako aurrekontu-proiektuak honako hau dio: "2009ko ekitaldiari begira, EAEko Administrazio Orokorren zorpetze-eragiketarako zehaztutako gehienezkoa 361,1 milioi eurokoa da. Zenbateko hori aurreko ekitaldian aurreikusitako gehienezkoa baino handiagoa da, ordukoa 225,2 milioi eurokoa izanik". Beraz, Administrazioak jaulki dezakeen gehienezko zor publikoa 361,1 milioi eurokoa da. Lehendakariordeak harro-harro aipatu du datu hori, aurrekontu-proiektua aurkeztean, Gobernuak abagune ekonomiko berriaren kontrako neurriak hartzeko prest dagoela azalduz, baita aurreko urtealdietakoa baino zor publiko handiagoa jaulkitzeko ere.


Eusko Jaurlaritzak urte asko daramatza, ordea, zor publikorik jaulki gabe, jaulkipen-asmoa ekitaldi gehientsuetako aurrekontu-proiektuetan jaso duen arren. 2008rako, adibidez, 225,2 milioi euroko gehienezko zorra jaulkitzeko aukera aurreikusi zen, eta 2008ko abenduaren 15a zehaztu zen jaulkipena egiteko. Baina data hori iraganik, Lakuako gobernua ez du zor publikorik jaulki.

2009rako aurrekontu-proiektuak dioenaren arabera, Jaurlaritzaren zorpetzea 1.268,8 milioi eurokoa izango da 2008aren amaieran. Baina hori ez da egia. Berez, benetako zorra askoz txikiagoa da: 125 milioi eurokoa, zehazki. Bi kopuru horien arteko diferentzia 225,2 milioi euroko zor-jaulkipenean (lehen esan dugunez, jaulki ez dena) eta Jaurlaritzak gauzatu ez dituen kreditu-linea batzuei dagozkien 941,9 milioi euroetan daude. Hortaz, BPGd-aren %1,7ko zor publikoa egin dutela sinestarazi nahian dabilta (berez, oso ehuneko txikia, hori ere), nahiz eta benetako zorra BPGd-aren %0,2koa baino ez den.

Egia hain irrigarria izaki, errealitatea apaindu eta benetakoa baino zor publiko handiagoa aurkeztu nahiago du EJK. Lotsa sentitzeko, behintzat, badu arrazoia, pertsonako batez besteko zorra (58,4 euro) etxebizitza erosi duten pertsonen batez besteko hipoteka (146.700 eurokoa, irailean) baino askoz urriagoa da eta.

Gutziz gaitzesgarri deritzogu zor publikorik ez jaulkitzeko eta zorra amortizatzeke ohiko joeran oinarrituriko politika horri, zor publikoak ekonomian duen pisua murriztera jotzen duelako. Aitzitik, etxebizitza erosten duten biztanleek euren gain hartzen duten zorra nabarmenki handitzen ari da.

EUSKO JAURLARITZAREN ZOR PUBLIKOA. 1998-2008 (BPGd %)




Iturriak: 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

9. AURREKONTU SUPERABITA

Urtez urte, bai Eusko Jaurlaritza, bai EAeko Foru Aldundiak superabitez ixten ari dira ekitaldiak. Hau da, urtealdi bakoitzean sartzen den dirua ere ez gastatzea da beraien hautua. Nahiago dute dirua aurreztu, euskal biztanleen gizarte-premiei erantzun baino.

Gainera, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, aurrezki hori gero eta gehiago handitu da 2003tik aurrera. Itxitako azken urtealdian, 2007koan, 1.396 milioi eurokoa izan da superabita; kopuru hori, adibidez, gastu txikienezko 6 sailek (Kultura, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak, Garraioak eta Herri Lanak, Nekazaritza eta Arrantza, Ogasuna eta Herri Administrazioa, eta Ingurumena eta Lurralde Antolamendua) batera gastatzen dutena baino handiagoa da, eta ekitaldi horretako etxebizitza-gastua baino 7 bider handiagoa, halaber.

Horrez gain, ekonomia moteldu bada ere, 2008ko lehenengo 9 hilabeteetan ere izan da superabita, mardula gainera. Izan ere, urteko lehenengo 3 hiruilekoetan, 916 milioi euroko superabita lortu dute EAeko administrazioek; beraz, 2007koaren antzeko superabitaz itx dezakete urtealdia.


**AURREKONTU-EMAITZA. EAE,
1999-2008* (MILIOI EUROTAN)**


Iturria: Aurrekontuen Gauzatzeari buruzko Estatistika, Eusko Jaurlaritzza

() Aldagai horretan, ez daukagu 1998ko urtealdiari buruzko informaziorik. 2008ko datuan, urteko lehenengo 9 hilabeteak baino ez daude sartuta.*

10. GASTU FISKALAK

2009ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuak 6.689,3 milioi euroko gastu fiskalak aurreikusten ditu. Hortaz, zerga-arintze, kenketa eta abarren bidez BPGd-aren %9,1 beste diru biltzeke uztea erabaki dute. Ideia zehatzagoa egiteko, zenbateko hori hiru sail nagusietan (osasuna; hezkuntza, unibertsitateak eta ikerkuntza, eta herrizaingoa) aurreikusitako gastua bestekoa da.

GASTU FISKALA ETA BENETAKO DIRU-SARRERA. EAE, 2009


Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2009 Proiektua

Erabat zentzugabea da gastu fiskalak hain handiak izatea. Zerga-iruzurratik eta ondoz ondo egiten ari diren beheranzko zerga-erreformen ondorioz bildu gabe uzten diren diru-kopuruen batura ikusita, ez da harritzekoa gure presio fiskala, eta, beraz, gure gizarte-gastua ere, Europar Batasuneko azken tokian egotea.

11. ADMINISTRAZIOKO LANGILEEI BURUZKO POLITIKA

Atal honetan, EJK baliatu nahi duen enplegu-politika murriztailearekin zerikusia duen aurrekontu-gai bat aztertuko dugu.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 7/2007 Legeak (estatukoa), apirilaren 12koak, sei egun bermatzen ditu, beste baimen batzuen artean, norberak kudeatu beharreko zereginetarako ("moskoso" deritze egunoi).

Berme hori, hala ere, "lege aplikagarririk ezean" aplikatzekotan xedatuenez, eskumen-gatazka eragin du, eta epaitegietara eramana da auzia. EAEk bere legeria baduela dio zeharka EJK.

Eman diren epaiak Eusko Jaurlaritzaren kontrakoak izan dira, eta sei egun horiek hartzeko eskubidea onesten diete funtzionarioei.

Jaurlaritzak aurrekontu-proiektuan txertatu duen artikulua araberak, egun horiek "lanegun ordaindutat hartuko dira, lan-denbortzat barik, eta, beraz, berreskuratu beharko dira". Horrela, bada,

aintzakotzat hartzen ditu sei egunak, baina berreskuratu behar den denbora gisa. Horixe da Jaurlearitzak bere langileen lan-baldintzak murrizteko hautatu duen bidea.

Beste kritika bat ere badugu Eusko Jaurlearitzaren jardunbideari buruz. Alde batetik, Estatuko oinarritzko legeen politika kritikatzeko badu ere, behar besteko eskumenak dituen esparruetan (autonomia-erkidegoko administrazio publikoan, esaterako), labur gertatzen da Estatuko legeriaren aldean. Eta hori gutxi balitz, bere plantillako langileen lan-baldintzak txarragotu nahian dabil.

C. NAFARROAKO GOBERNUAK 2009rako IRAGARRITAKO AURREKONTU-PROIEKTUA ETA ZERGA-ERREFORMAK

1. GASTU PUBLIKOA FALTSUTU EGITEN DA

2009ko ekitaldirako aurrekontuetan, Nafarroako Gobernuak benetakoko gastu bailiran sartu ditu gastu fiskalei dagozkien partida batzuk. Era horretan, zergen bidez biltzeke geratzen diren diru-kopuruak gauzatutako gastu gisa aurkezten ditu. Hortaz, nafar gobernuak zerga-murrizketen zioz biltzen ez duen diruari, hots, diru publikoa ez biltzeari, gastu publiko deritzo.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako aurrekontuan, 4.301,8 milioi euroko gastu publikoa aipatzen du. Baina, zenbateko horretatik gastu fiskalak kenduta, 2009rako aurreikusitako benetakoko gastua 3.859,5 milioikoa da.

Horren arabera, gastu publikoak BPGd-arekiko duen pisua %19,3koa da. Oraingoan ere, Osasun Departamentua litzateke gastu handienekoa, 903,2 milioi eurokoa, hain zuzen ere, guztizkoaren %23,4 dagokiolarik. Hurrengo gastu handiena, 710 milioi eurokoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena litzateke, guztizko gastuaren %18,4rekin. Hirugarren diru-zuzkidura handiena Hezkuntza Departamentuari legokioke: 644,2 milioi euro, hots, Nafarroako Gobernuak 2009rako aurreikusitako gastu osoaren %16,7.

	2009			
	Aurrekon- proiektua	Aurr.-pro. Gtu. fisk.	%/Guztiz.	BPGd %
Osasuna	903,2	903,2	23,4	4,5
Ekonomia eta Ogasuna	710,0	710,0	18,4	3,6
Hezkuntza	644,2	644,2	16,7	3,2
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	413,7	200,5	5,2	1,0
Familia, Gazteria, Kirola eta Giz.-G.	362,8	297,3	7,7	1,5
Lehendak., Justizia eta Herrizaintza	284,8	284,8	7,4	1,4
Toki Administrazioa	254,3	254,3	6,6	1,3
Etxebizitza eta Lurralde Antolam.	236,3	72,7	1,9	0,4
Landa Garapena eta Ingurumena	180,3	180,3	4,7	0,9
Herri Lanak, Garraioak eta Komunik.	202,6	202,6	5,2	1,0
Vianako Printzea Erak.-Kult. eta Tur.	74,0	74,0	1,9	0,4
Erakundeekiko Harr. eta Gob. Eleduna	17,2	17,2	0,4	0,1
Beste batzuk	19,6	18,4	0,5	0,1
GUZTIRA	4.301,8	3.859,5	100	19,3

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

Gastu fiskalak aurrekontuko eta gastuko partidetan sartzea aurrez pentsatutako asmo zehatza duen amarrua da: gastu publikoari dagokion datua puzteko eta xede horretara bideratzen den BPGd portzentajea benetakoa baino handiagoa dela sinestazteko asmoa, hain zuzen ere.

Aurrekontua aurkezteko modu horrek ez du parekorik inguruko ezein herrialdetan, ez autonomia-erkidegotan.

Hortaz, aurrekontuetan islatutako gastu fiskalak 442,3 milioi eurokoak dira, eta honela daude banatuta:

**AURREKONTU-PROIEKTUAN JASOTAKO
GASTU FISKALAK. NAFARROA 2009 (€)**

	Aurrekontu-ptu.
Etxebizitza-alokairuen ondoriozko gastu fiskalak	10.268.309
Ohiko etxebizitzan egindako inbertsioen ziozko gastu fiskalak	153.273.204
Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Dptu.	163.541.513
Enplegu-sorreragatiko gastu fiskalak	20.289.797
Inbertsioagatiko gastu fiskalak	182.341.775
I+G+Bko inbertsioagatiko gastu fiskalak	10.589.911
Industria eta Teknol., Merkataritza eta Lan Dptu.	213.221.483
Pentsioengatiko kenketen ondoriozko gastu fiskalak	10.615.537
Kotizazioengatiko kenketen ondoriozko gastu fiskalak	453.797
Gizarte-aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen ziozko g.f.	54.461.824
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Dptu.	65.531.158
Kultura-intereseko ondasunetan inbertitzeagatiko gtu. fiskalak	5.846
Vianako Printzea Erak. - Kultura eta Turismo Dptu.	5.846
GASTU FISKALAK, GUZTIRA	442.300.000

*Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren
informazioan oinarriturik*


2. GASTU PUBLIKOAK EKONOMIAN DUEN PISUA URRITU EGITEN DA

Nafarroako Gobernuaren gastuak ekonomian duen pisua murriztuz doa urtez urte. Azken bi urteei erreparaturik, 2007ko ekitaldian BPGd-aren %21,1 izatetik 2008ko %21,5era eta 2009ko %19,3ra igaroda, ondoz ondo.

Urripen horren neurriaz oihartzeko, esan dezagun 2009an gastu publikoak BPGd-an duen partaidetza 2007an izandako bera balitz, gastua aurrekontuetan zehaztutakoa baino 350,3 milioi euro handiagoa litzatekeela. 2008koarekiko jazo den murrizketa 429,5 milioi eurokoa litzateke.

Hurrengo grafikoan, benetako gastuaren eta gastu fiskalak barneratzen dituenaren arteko diferentziaren bilakaera ikus daiteke. Bertan, 2008ko itxiera-aurreikuspena eta 2005etik aurrera, hau da, gastu fiskalak benetako gastutzat hartzen hasi ziren urtealditik aurrera, egindako gastua ageri dira. Benetako gastua lerroak irudikatzen du, eta gastu fiskala barnean duena, puntuek.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTUAREN BILAKAERA (BPGd %). 1998-2009



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

3. GASTUAREN URRITZE OROKORRA

2009rako aurreikusitako gastu publikoa urritu egin da 2008ko itxiera-aurreikuspenarekiko, bai BPGd ehunekoari, bai eurotako zenbatekoari dagokienez.

- *Gastu publikoari dagokion BPGd portzentajearen gutxipena.*

2009rako gastu publikoak 2,15 puntuko lerra erakusten du BPGd-arekiko. Berez, gastuari dagokion BPGd portzentajea departamentu guztietan urritu da.

- *Gastu publikoaren zenbatekoaren murrizketa.*

Baina, aurrekontu-proiektuan aurkeztutako gastu publikoari dagokion BPGd portzentajea ez ezik, eurotako zenbatekoa ere bada txikiagoa. Zehazki, 2008ko itxiera-aurreikuspena baino 283,4 milioi euro gutxiagoko gastu publikoa jasotzen du proiektuak; hots, % 6,8ko jaitsiera nominala agertzen du.

Kasu horretan, 2008ko aurreikuspena baino gastu txikiagoa jasozten duten departamentuak hamaika dira. Bereziki aipagarriak dira Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren aurrekontuan ageri den jaitsiera (%30,4koa, hain zuzen ere), Etxebizitza eta Lurralde Antolamendu Departamentuarena (%26,6koa) eta Kultura eta Turismo Departamentuarena (%21,3koa), jaitsiera horien ondorioz departamentuok, hurrenez hurren, 88,5 milioi, 26,3 milioi eta 20 milioi euro gutxiago jasoko dute eta.

Alderdi azpimarragarrietan, aipatu behar da 2008ko likidazio aurreikuspenak esleitutakoa baino 133,2 milioi euro gehiagoko gastua eragin duela Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan, SPRINekin hitzartutako "Inbertsioen Bizkortze Planera" zuzendu diren sei partiden zioz. Hau da, 2008ko likidazio aurreikuspenean, hasierako aurrekontuetan jasota ez zegoen zuzkidura bat esleitu zaio plan horri, eta, ondorioz, aurrekontu bateratua hasierakoa baino askoz handiagoa da.

2008koa baino gastu txikiagoa aurreikusi zaien gainerako departamentuetan ere murrizketa oso garrantzitsua da; horra hor Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak jasango duen %19,6ko gutxipena, edo Toki Administrazioiko Departamentuaren %13,2koa, besteak beste.

GASTU-DIFERENTZIA DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU. 2008-2009


	DIF. (milioi €)	Ald. %	BPGd puntu-dif.
OSASUNA	-1.381.990	-0,2	-0,17
EKONOMIA ETA OGASUNA	-24.095.340	-3,3	-0,25
HEZKUNTZA	-10.676.396	-1,6	-0,17
BERRIKUNTZA, ENPRESA ETA ENPLEGUA	-48.956.539	-19,6	-0,29
FAM., GAZT., KIROLA ETA GIZ. GAIAK	9.111.504	3,2	-0,01
LEHENDAK., JUSTIZIA ETA HERRIZAINNTZA	-12.660.478	-4,3	-0,12
TOKI ADMINISTRAZIOA	-38.648.312	-13,2	-0,25
ETXEBIZITZA ETA LURRALDE ANTOLAM.	-26.312.499	-26,6	-0,15
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	-18.763.964	-9,4	-0,13
HERRI LANAK, GARRAIOA ETA KOMUNIK.	-88.515.411	-30,4	-0,49
VIANAKO PRINTZEA ERAK.-KULT. ETA TUR.	-19.987.640	-21,3	-0,12
ERAKUNDEEKIKO HARR. ETA GOB. ELEDUNA	-2.708.385	-13,6	-0,02
BESTE BATZUK	157.141	0,9	0,00
GUZTIRA	-283.438.309	-6,8	-2,15

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

4. OSASUNeko GASTU ESKASA

2009rako aurreikusitako osasun-gastua 903,2 milioi eurokoa da, hau da, BPGd-aren %4,5ekoa. Datu horrek garrantzizko jausia erakusten du 2008ko %4,69ari buruz, eta agerian uzten du zer-nolako gastu-politika garatzen ari den azken urteetan. Urte bakoitzeko aldakuntzak gorabehera, osasuneko gastu publikoari dagokion BPGd portzentajea antzekoa da urtez urte, 1998tik aurrera.

NAFARROAKO GOBERNUAREN OSASUN-GASTUAREN BILAKAERA (BPGd %). 1998-2009⁽¹⁾



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

Osasun arloaren atal zehatzak aztertuta, honako datu hauek nabarmentu daitezke:

- Lehen mailako arretara 267,3 milioi euro bideratzeko asmoa dago, alegia, BPGd-aren %1,3, edo, bestela esanda, Osasun Departamentu osorako partidaren %29,6.
- Lan-osasunerako, 4,9 milioi euro erabiliko dira, hots, BPGd-aren %0,12 baino ez, eta Osasunerako gastu osoaren %0,5.
- Osasun-laguntzan, 2,4 milioi gastatzea aurreikusi dute, hau da, BPGd-aren %0,06, eta Osasuneko gastuaren %0,26.

**OSASUNeko GASTU PUBLIKOA, ATAL ZEHATZAK.
NAFARROA, 2009**


	Miloi €	BPGd %
Lehen mailako arreta	267,3	1,3
Lan-osasuna	4,9	0,12
Osasun-laguntza	2,4	0,06

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

Frogatuta dago, beraz, noraino den eskasa osasuneko gastua, are gehiago Nafarroako osasun arloko premia gero eta handiagoak eta ELGerekiko gastu-defizita kontuan hartuta.

Nazioarteko inguruarekiko erkaketa egiteko dugun azken informazioa 2005ekoa da; horren arabera, urte horretan ELGEko osasuneko gastu publikoa BPGd-aren %6,5ekoa zen, batez beste, Nafarroako portzentajea %4,4koa zelarik. Nafarroako osasunean, 2005ean, ELGEN, baino 332,9 milioi euro gutxiago gastatu zirela esan nahi du BPGd-aren 2,1 puntuko alde horrek, eta diferentzia hori urtero errepikatu izan da. Hortaz, Nafarroan 549,5 euro gutxiago gastatu ziren biztanleko, ELGEN batez beste baino.

OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (BPGd %). ELGE, 2005




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, ELGEren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

5. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

2009rako aurrekontu-proiektuak 644,2 milioi euroko gastu publikoa –hau da, BPGd-aren %3,2koa– zehazten du hezkuntzarako.

Hezkuntzako gastuak azken urteetan izan duen bilakaera aztertzean, orain arteko politika berean jarraitzeko asmoa argi azaltzen da:


NAFARROAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA-GASTUAREN BILAKAERA (BPGd %). 1998-2009⁽¹⁾



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

Nazioartean hezkuntzan gastatzen denari buruz dugun azken informazioaren arabera, 2005ean hezkuntzako batez besteko gastu publikoa BPGd-aren %5ekoa izan zen, Nafarroako %2,96aren aldean. Alegia, 2005ean Nafarroan ELGEn batez beste baino 324,4 milioi euro gutxiago gastatu zirela –eta 533,8 euro gutxiago biztanleko-esan nahi du 2,04 puntuko defizit horrek.

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (BPGd %). 2005



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, ELGEren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

6. EUSKARA GAIETAN GASTU PUBLIKOA

Guztira 3,9 milioi euro izango dira 2009an euskarari izango den gastua, BPGd-aren %0,019.

Euskara helburu duten partidek %39ko atzeraldia jasango dute 2009 aurrekontuetan, 2008 aurrekontu bateratuekin alderatuta.

Euskara helburu duten partiden %78, Euskarabidea-ra (Instituto Navarro del Vasconce) zuzentzen dira. Honek %30eko txikiagotzea jasan du 2009ko aurrekontuetan, 2008ko aurrekontu bateratuen aldean.

Ikerketa, garapena, formazioa eta aholkularitza funtzioak betetzen ditu Euskarabideak, bai Administrazio publikoen baitan, edo hauek kanpo, baina beti euskararen inguruan. Beste batzuen artean, ondorengo partidak hartzen ditu bere gain, Euskaltzaindiarekin akordioa, eremu ez euskalduneko ikastolen aparteko dirulaguntza, Gau-Eskolei dirulaguntza, komunikabideetako euskararen inguruko programak, analisi programak, hizkuntza politikaren ikerketa eta ebaluazioa edo ikerketan garapena, proiektu soziolinguistikoak, eta abar.

Euskarabideaz gaineko euskararen inguruko beste partida guztiak ere murriztu dira. Ala, Lehendakaritza, Justizia eta Barne saileko euskara eta hizkuntza komunitarioen zerbitzua %69 murriztu da. Hezkuntza sailean, euskararen irakaskuntzaren garapenari zuzenduriko diru gastua, %39 txikiagotuko da. Hari honetan, esanguratsua da atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren garapenari 2.102.001 euro bideratuko direla 2009an, euskararen irakaskuntzaren garapenera 439.389 euro bideratuko diren bitartean.

**EUSKARA GAJETARA ZUZENDURIKO PARTIDA.
(2009 aurrekontua / 2008ko aurrekontu bateratua).**

	2009ko aurrekontua	2008ko aurrek. bateratua	Aldea	
Euskara eta hizkuntza komunitarioen zerbitzua	423.026	1.382.035	-959.009	-%69
Euskararen irakaskuntzaren garapena	439.389	722.603	-283.214	-%39
Euskarabidea	3.070.653	4.393.099	-1.322.446	-%30
GUZTIRA	3.933.068	6.497.737	-2.564.669	-%39

Iturria: Nafarroako Gobernuak emandako informazioaren gainean egina

Euskarara zuzenduriko gastu publikoa murriztuz joan da eten gabe. Hortaz, 2008ko BPGd-arekiko portzentajea mantendu izan balitz baino 459.201 euro gutxiago gastatuko dira 2009an, eta 2.455.687 euro gutxiago 2002ko BPGd-arekiko portzentaia mantenduko balitz baino.

7. ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA

Aurrekontu-proiektuan Etxebizitza eta Lurralde Antolamendurako Departamentura 236,3 milioi euro bideratuko direla ageri arren, 72,7 milioi euroko partida jasotzea aurreikusi da, horixe baita gastu gisa sartu dituzten gastu fiskalak kenduta geratzen den zenbatekoa (3 bider txikiagoa, alafede).

Partida hori hiru ataletan dago banaturik: lehenengoa Zerbitzu Orokorreko eta Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzara bideratzekoa da, 2,4 milioi eurokoa, zehazki; Lurralde Plangintzara eta Hirigintzako Plangintzara 4,4 milioi zuzenduko dira, eta Etxebizitzak Eraikitzeke eta Birgaitzeko zuzkidura 65,8 milioikoa izango da.

Beraz, etxebizitzarako aurreikusi den benetako gastua 65,8 milioi eurokoa da, hau da, Gobernuak 2009rako aurreikusitako gastu osoaren %1,7, edo BPGd-aren %0,3, bestela adierazita. Argi dago gastu hori ez dela nahikoa, arlo horretan dagoen arazo itzelari erantzuteko.

	Milioi €
Zerbitzu Orokorreko eta Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza	2,4
Lurralde Plangintza eta Hirigintzako Plangintza	4,4
Etxebizitzen Eraikuntza eta Birgaikuntza	65,8

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

Etxebizitzarako zehaztutako baliabideak, urriak izateaz gain, ez dira modu egokian bideratzen. Etxebizitzarekin loturiko zerga-arintzeen ondorioz, 163,5 milioi euro utziko dira bildu gabe, hots, etxebizitzako gastu publikoa halako 2,5.

Desgrabazioak gastu publikoaren kaltetan lehenesteko hautu politiko hori erregresiboa da; izan ere:

- Ez dakarkie onurarik kolektiborik behartsuenei.
- Etxebizitza erostea erabakitzen dutenei diru-sarrera publikoak transferitzea dakar.
- Jabegoa lehenesten dute. Zehazki, arlo honetako zerga-arintzeen %93,7 etxebizitza-erosketei dagokie, alokairuen ziozkoak %6,3 baino ez direlarik.

ETXEBIZITZAKO ZERGA-ARINTZEAK, 2009

Erosketa		Alokairua		Guztira
Milioi €	%	Milioi €	%	Milioi €
153,3	%93,7	10,3	%6,3	163,5

Iturriak: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

Milaka biztanlek etxebizitzarako aukerarik ez dutelarik, Nafarroako Gobernuaren jarrerak ez du orain arte inolako eraginkortasunik erakutsi.

Bien bitartean, Kontuetako Ganberak prestatutako 2008/20 txostenak dioenez, Iruñean 15.304 etxebizitza daude hutsik, eta 22.000 inguru Eskualde osoan. Datuen arabera, Iruñean hutsik dauden

etxebizitzak etxebizitza guztien %18 lirateke. Kasualitatez, agian, kopuru hori bat dator 2002-2007 artean Iruñerrian eraikitzen amaitu ziren etxebizitzarenekin: 22.016, hain zuzen (horietatik %67 etxebizitza libreak izan ziren; %11, salneurri tasatuko etxebizitzak, eta %22, babes ofizialekoak).

Hortaz, etxebizitza lortzeko oztopoak gizarteko arazorik larrienetakoa bada ere, Nafarroako Gobernuak arlo horretan garatutako politika erratuaren ondorioz, 2002 eta 2007 artean amaitutako etxebizitza kopuru berdina dago hutsik.

Eta arazoari aurre egin beharrean, 2009rako esleitutako aurrekontuzuzkidura 2008koa baino %26,6 txikiagoa da, irtenbideak aurkitzeko borondate politikorik eza agerian utzirik.

8. ZERGA-IRUZURRA

Ezbairik gabe, zerga-bilketa murrizten duten alderdietako bat iruzur fiskala da. Iruzuraren aurkako politika eraginkorra balitz, horrelako diru-galerak saihestuko lirateke eta iruzurraren zioz bildu gabe geratutako diru guztia berreskuratuko. Ildo horretan, 2009ri begira ikuskaritzarako zehaztutako baliabideak Aurrekontu Orokorrei buruzko Proiektuaren I. Eranskinean azaltzen dira.

Zehatz esateko, 42 lagun arituko dira guztira zergen ikuskaritzalanetan, Foru Erkidego osoan; horien artean, 17 ogasun-teknikari, 13 kudeatzaile eta 4 administrari daude, eta gainerakoak, zerbitzuko zuzendaria izan ezik, unitate, sekzio zein negoziatuetako buruak dira. Hala eta guztiz ere, 350 eta 400 ikuskapen bitarte egiteko asmoa dago. 2003an, jada, ikuskatu beharreko pertsona fisikoak edo juridikoak 350 ziren. Beraz, nahiz eta plantillan pertsona gehiago egon, aurreikusitako ikuskapenen kopurua oso txikia da, ia irrigarria, eta 2003koaren antzekoa, halaber.

ZERGA-IKUSKARITZARI BURUZKO DATUAK. NAFARROA, 2009

Ikuskaritzan diharduten pertsonak	42
Egin beharreko ikuskapenak	350-400
Ikuskapenen kopurua ikuskaritzako langileko	8-10

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

Baina Nafarroako Gobernuak sekula ez du esaten benetan zenbat ikuskapen egiten diren, eta zentzuzkoa da aurrekontu-proiektuan islatutako zifra txikietara ere heltzen ez direla pentsatzea.

Zerga-ikuskaritzarako aurreikusitako gastua 2,9 milioi eurokoa da, hots, 2009rako aurrekontuko gastuaren %0,067. Gastu hutsal horrek argi azaltzen du Nafarroako Gobernuak zerga-iruzurra desagerrarazteko duen interes urria.

9. AURREKONTU-MURRIZKETA

Diru-sarrerak gero eta txikiagoak direlarik ere, Nafarroako Gobernuak finantza-orekadun aurrekontu-proiektuak jarraitu du aurkezten, urtealdiak superabitez ixtearren.

2007ko ekitaldiaren itxieran, 113 milioi euroko superabita izan zuen, BPGd-aren %0,61ekoa, alegia. 1995etik hona, 10 urtealditan izan du superabita Nafarroako Gobernuak, eta 3tan bakarrik defizita.

NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTU-EMAITZA. 1995-2007. (Milioi euroak)

1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
118,1	30,3	27,1	63,8	14,4	5,81	-66,6	31,72	-34,4	-84,1	73,6	120	113

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren informazioan oinarriturik

Gobernuak aurreztu dituen diru-kopuru horiek gizarte-premiak estaltzeko erabil zitzakeen, baina zor publikoa murriztera bideratu nahiago izan du, gizarte-estalduretan 15-EBrekiko dugun aldea aintzat hartu gabe.


10. ZOR PUBLIKOA

Superabitari esker eta zor publikorik ez jaulkitzeagatik, zor publikoak gero eta pisu txikiagoa du ekonomian.

2007ko abenduaren 31n, Nafarroako zor bizia 610,45 milioi eurokoa zen, hau da, BPGd-aren %3,3koa. 1998tik aurrera, BPGd-aren 3,9 puntu urritu da, aipatutako urte horretan BPGd-aren %7,2koa zen eta.

Administrazioak bere zereginetikiko darabilen utzikeriaren erakusgarri argia dugu hori; izan ere, gero eta zorpetze txikiagoa erabakitzean, gizartearen bizkarrean uzten da, gero eta hein handiagoan, premiak estaltzeko atazari aurre egin beharra.

ZOR PUBLIKOA (BPGd %). 1998-2007



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren informazioan oinarriturik

11. ZERGA-ERREFORMEI BURUZKO PROIEKTUAREN AZTERKETA

Egingo diren erreformek ere izango dute eragina 2009ko urtealdiko gastuan. Erreformek batez ere honako hiru zerga hauetara ekarriko dituzte aldaketak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergara, Ondarearen gaineko Zergara eta Sozietateen gaineko Zergara.

11.1. PFEZ

Zerga honetako aldaketarik garrantzitsuena aurrezkien zerga-oinarri bereziaren karga-tasaren gehikuntza izango da. Tasa horri hiru puntu gehitzeko asmoa dute, oraingo %15etik %18ra, alegia, Estatukoarekin parekatzearren. Aurrezkiaren zerga-oinarri bereziaren karga-tasaren igoera horrek 18,7 milioi euro gehiago ekarriko dizkio Ogasunari.

Bestalde, gaitzesgarri deritzogu Nafarroako Gobernuaren jokabideari, zergaren deflaktazioa zuzenketa partzial gisa aurkeztu baitu, proiektutik bertatik sartu beharrean.

11.2. Ondarearen gaineko zerga

Ondarearen gaineko Zerga ezeztatu egiten da; horrek 70 milioi euroko kostua izango du 2009rako aurrekontuan.

Formalki, lege-testu bat egongo da, baina inolako edukirik gabekoa. Lege Proiektuan bertan jada azaltzen denez, "asmoa Zergaren ondorio ekonomikoak erabat neutralizatzea da, baina formalki deuseztatu gabe".

Zerga horrek norberaren gauzak, etxeko gauzak eta ohiko etxebizitza ez beste guztia zergapetzen du (150.000 eurotik gora), Legean beste salbuespen batzuk ere jasotzen direlarik.

Zerga horren oinarria kalkulatzeko, lehenengo, 150.253,03 euro kentzen dira, gutxienezko zenbateko salbuetsi gisa. Ondoren, 300.506,06 euro edo gutxiagoko zerga-oinarria duten subjektu pasiboek 150.253,03 euro kenduko dituzte bertatik, obligazio errealez zergapeturik egon ezik.

Horrek esan nahi du 300.506,06 eurotik gorako ondarea (norberaren gauzak, ohiko etxebizitza eta salbuetsitako gainerakoak alde batera utzita) duten subjektu pasiboek bakarrik ordaindu beharko dutela Ondarearen gaineko Zerga, beraien ondareak zerga honen ondorioetarako berariaz zenbatetsirik (hortaz, ondarearen balioak ez du ezinbestez bat etorri behar merkatuko balioarekin).

Ezeztapena 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarrez xedatu da; beraz, Lege Proiektuari jarraituz, urtealdi honetatik bertatik hasita desagertuko da zerga hori (2009an egin beharreko aitorpenari begira, jadanik).

11.3. Sozietateen gaineko zerga

Aurreko ekitaldian milioi bat euroko edo hortik beherako negoziozifra garbia izan duten entitateek ordaindu beharreko karga-tasaren murrizketa izango da zerga horretan egingo den aldaketarik garrantzitsuena; zehazki, %24tik %23ra jaitsiko da tasa.

Karga-tasaren murrizketa horrek 1,7 milioi euro utzikotu ditu zerga-bilketatik kanpo.

Horrela, jarraipena ematen zaie zerga horretan aspaldidanik egin izan diren beherapenei. Izan ere, Nafarroako Gobernuak 1996tik

aurrera hartu izan ditu legegintzazko neurriak, Sozietateen gaineko Zergaren tasa jaisteko.

**SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN KARGA-TASAK (%).
NAFARROA. 1996-2009**

	1996	2001	2005	2007	2008	2009
Enpresa handiak	35	35	35	32,5	30	30
9 milioi €-tik beherako negoziadun enpresak	35	35	35	28	28	28
6 milioi €-tik beherako negoziadun enpresak	35	32,5	32,5	32,5	28	28
1 milioi €-tik beherako negoziadun enpresak	35	32,5	30	25	24	23

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, zergari buruzko arautegian oinarriturik

Berriro ere, enpresek eta Nafarroako ondarerik handienek ordaindu beharreko zergak murrizten dira, langileriaren errentak zergapezten dituen PFEZren tasa igo egiten delarik.

Horri guztiari aipatutako aldaketek zerga-bilketan eragingo duten murrizketa gehitu behar zaio, oraingo abagune ekonomikoan garrantzi berezia izango baitu. Alabaina, 53 milioi euro gutxiago (etxebizitzan inbertituko dena beste ia) geratuko dira biltzeke horren zioz.

Gainera, zergen murrizketak errentarik handienei eta enpresariei baino ez dakarkie onura, eta horren eraginez ere, presio fiskala are txikiagoa da. Horrek zuzeneko isla du gizarte-gastuan, dagoeneko EBrekiko dagoen jauzia (Nafarroako %17,5etik EBeko %27,6rako) areagotuz.

12. ONDORIOZTAPENAK

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako aurrekontu-proiektua irakurtzean ezinbestez atera behar den lehenengo ondorioa argitasunik eza da, bai eta, benetan gastatuko dena baino gehiago gastatuko dela sinestaraztearren, informazio oro makillatzeko asmo nabaria ere.

Gobernuaren oraingo politika aurreko ekitaldietan garatutakoaren jarraipen hutsa da, eta gastu publikoari gero eta pisu gehiago kentzean datza. Berez, Gobernuaren gastu publikoak BPGd-arekiko duen pisua urrituz doa pixkanaka.

Dena den, 2009ri begira gastu publikoan planteatzen den murrizketa aurreko ekitaldietakoa baino are handiagoa da, esleitutako portzentajeak ez ezik, diru-kopuruak eurak ere baitira txikiagoak.

Gastu publikoa urritzearen ondorioak askoz larriagoak izango dira ekonomiaren dezelerazio-egoeran, non Administrazioaren jokabideak guztiz alderantzizkoa izan beharko lukeen. Gastu publiko handiagoa eginez, ekoizpena sustatuko litzateke, eta, ondorioz, ekonomia ere bai. Zehazki, zerbitzuetako gastu publikoa gehitzeak, enplegua sorrarazteaz gain, ekonomia jasangarria bultzatuko luke, etorkizunari begira.

Bereziki aipagarria da Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuko gastuan aurreikusten den %26,6ko lerma, horren eraginez, 2008an baino 26 milioi euro gutxiago inbertituko dira eta. Guztiz ulertezina da etxebizitzarako aurrekontuaren laurdena baino gehiago murriztea, etxebizitza Nafarroako biztanleriaren arazorik larrienetakoa dela jakinik.

Osasuneko eta Hezkuntzako gastuei heltzen badiegu, nazioarteko gastuarekiko alderaketa oso argigarria da. 2009an, Nafarroako Foru Erkidegoak aurtan baino gutxiago gastatuko du Osasunean eta Hezkuntzan, bai zenbatekoan, bai BPGd portzentajearen. Portzentaje hori ELGEko batez bestekoa baino bi puntu txikiagoa da, eta nazioarteko azken tokian jartzen gaitu.

Gure gobernariak ekonomiaren dezelerazioa aipatzen dute zerga-bilketaren urripenaren arrazoi gisa. Aitzitik, murrizketaren zati handi bat zergetan egindako aldaketek eragiten dute.

Zehazki, aurkeztu berri diren erreformek 53 milioi euroko gutxiapena -BPGd-aren %0,27- eragingo dute 2009ko zerga-bilketan.

ELA zergen edozein murrizketaren aurka dago:

- Diru gutxiago biltzeak gastu publiko urritzea dakarrelako.
- Egiten ari diren beherapenek errenta handienei eta kapitalaren errentei bakarrik egiten dietelako mesede.
- Europako presio fiskaletik areago urruntzen gaituztelako. 2005eko ekitaldian, adibidez, Nafarroako presio fiskala BPGd-aren %33,6koa izan zen, 27-EBko %39,6koaren aldean (izatez, Irlandak bakarrik izan zuen Nafarroakoa baino presio fiskal txikiagoa).

Baina proiektu honetan aurkeztutako zerga-beherapenak are arbuigarriagoak dira oraingo inguruabarretan, ekonomiaren dezelerazioaren aurrean administrazioak alderantzizko bideari heldu beharko liokeelako, hots, zerga-bilketa eta gizarte-gastu handiagoren bidez ekonomia suspertzeko eta indartzeko bideari.

ORRI-OINEKO OHARRA:

- (1) 1998 eta 2007 arteko ekitaldien gaineko informazioa egindako gastuari dagokio; 2008ko ekitaldiari buruzkoa, berriz, gastu-itxieraren aurreikuspenetik dator. 2009ko urtealdirako informazioa 2009rako Aurrekontu Proiektutik aterata dago.

2008ko eta 2009ko BPGd-ak kalkulatzeko, Espainiako Estatuak urtealdi horietako hazkunderari eta deflaktatzaileari buruz egindako aurreikuspenak hartu ditugu oinarri.

